

Elkarriketa: Izaskun Olabarria

Gurea altzari dendako arduraduna


«Bezeroei konfiantza ematea garrantzitsua da, berriz ere zugana itzul daitezen»

Gernikako Gurea altzari dendan egurra dute lehengai, eta euren eskaintzaren eta azken joeren berri eman digu hango arduradunak



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Gurea altzari dendan gela bateko altzari nagusietatik hasi, eta horiek apaintzeko erabil daitezkeen azken pieza arteko eskaintza dute.



luzea, hiruko arrunta, bikoa... Neurri askotarikoak ditugu, eta gero gainean estalki ugari jar daitezke, giroarekin bat eginez.

■ Zertan bereizten dituzue egongela eta jangela?

Egongela horixe da, egoteko lekua; telebista ikustekoa... Hor mahai txikiak jartzen dira. Jangelan, berriz, bazkaldu ahal izateko eta mahai handiagoa eta aulkiak jartzen dira. Guk, egia esan, egongela gehiago jartzen ditugu. Erosoagoak dira, eta jendeak horixe nahi du.

■ Nolako altzariak erabiltzen dituzue egongelan?

Altzari leunak nahi izaten dituzte, forma askorik gabekoak. Badakizu, errazago garbitzeko edo. Koloreei begira, egur argia da nagusi; gerezia batik bat. Dena den, bezeroak jokoak egin nahi ditu, eta horretarako altzariak oihala eta paretetako kolorearekin konbinatzen ditu.

■ Zein da zuen funtsezko helburua?

Bezeroari entzun, ahalik eta aholku gehien eman eta pozik uztea. Bestalde, konfiantza ematea garrantzitsua da, berriz ere zugana itzul daitezen. Askotan etxeko kontuak direla eta hitz egitera datoz, eta zuk adeitasunez jaso behar dituzu. Konpetentzia ere geroz eta handiagoa da, eta lana profesionaltasunez egitea beharrezkoa da.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Azken 27 urteetan Gernika eta inguruko etxe ugari altzarien hornitzaile dira. Bezeroen nahiak asetuz egiten dute lan. Izaskun Olabarria dendako arduradunak hango gorabeheren berri eman digu.

■ Zein da zuen dendan duzuen eskaintza?

Altzarietara mugatzen gara; beraz, logelak, sarrerak, sofak, besaulkiak eta egongelak edo jangelak dira batez ere lantzen ditugunak. Hala, altzari klasiko zein modernoak ditugu, baita apaintzeko erabil daitezkeen zenbait osagai ere.

■ Non hasi eta amaitzen da bezeroakiko konpromisoa?

Lehenik eta behin, bezeroak zer nahi duen entzuten dugu, eta gure ahalbideen arabera, es-

AUKERAN

«Egongelak jangelak baino gehiago saltzen ditugu, erosoagoak baitira»

kaintzaren berri ematen diogu. Neurriak berebiziko garrantzia duenez, gero, etxera joan eta neurtu egiten dugu. Ondoren, egin daitezkeen inguruko marrazki bat egiten diogu eta aurrekontua zehaztu. Betiere, bezeroak esango du gustuko duen edo ez, eta baita onartzen duen ere.

■ Bezeroak alpatu dituzu. Nola-

koa da zuen bezeroen profila? Nondik norainokoak?

Denetarik bezeroak ditugu. 27 urte daramatzagu lanean, eta urtez urte berritzen doazen bezeroez gain, aspaldi-aspaldik ere hortxe irauten dute. Lekuari begira, Gernika ingurutik datozela esango nuke: Gernika bertatik, Bermeotik, Lekeitiotik, Zornotzatik Mundakatik, Ondarroatik, eta, agian, gutxiengo Mungia eta Markina aldetik.

■ Eta zein da bezero horien jarrera? Ba al dakite zer nahi duten?

Gehienek aholkuak eskatzen dituzte; batez ere, zer egin dezaket eta nola. Eta guk, ahal dugun neurrian, diru gutxien gastatzeko moduko aukerak eskaintzen dizkiegu.

■ Zein da egungo joera nagusia logeletan?

Batik bat mugitzen diren atak jartzen dira armairuetan, sabairaino doazen horietakoak. Ispilu dezente sartzeko ohitura ere badago; baita komoda edo sinfonier deritzenak jartzekoa ere. Dena den, neurriari erreparatu behar zaio, horrek ematen baititu arazorik gehienak.

■ Eta jangeletan?

Boiserie estiloa da gehien eskatzen dena. Hemen ere, sabairaino doazen altzariak dira nagusi. Gehienak neurriari egiten dira, eta espazioaren arabera egokitu. Mahaiak ere jartzen dira, borobilak zein laukiak; baita aulkiak ere.

■ Eta sofaren kontua nola doa?

Horiek ere neurriari. Hiruko

GYRET

ALTZARIAK

LOGELAK • JANGELAK • TRESILOAK

Karlos Gangoiti, 4 Tf.. 94 625 20 76 GERNIKA

Emen SieMatic COCINAS

Kontzeptua: Ergonomia

M^a Diaz de Haro, 12 - 48013 BILBO
Tel. 94 441 84 52 - Faxe 94 442 55 38